

KLIMA BABESLEKUEN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN BIRNATURALIZAZIOAREN MOZIOA

Astigarragako Udaleko Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa eta EH Bilduko udaltaldearekin adostua.

Euskal Herriak egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin behar die eta erronka horietako handiena klima-aldaketa da, eragin globala eta handiena duelako.

Klima-aldaketak hainbat ondorio kezagarri ekarri ditu gure planetan, horietako bat bero-bolada gero eta gogorragoak eta ohikoagoak eragitea.

Uda honetan, gure lurraldea astindu duten bero-bolada gogorren lekuko izan gara, eta ezin dugu ahaztu muturreko gertaera horiek klima-aldaketarekin lotuta daudela.

Zientzialariek hamarkadak daramatzate klima-aldaketan fokua jartzen eta klima-aldaketak gure egunerokoan eragiten dituen inpaktuen maiztasuna eta eraginean arreta jartzen.

Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero-bolada horretan, 1981ean baino bero-erregistro historiko handiagoa izan zuela, eta abuztu erdialdean inoizko egunik beroena izan genuen: 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu ziren Euskadiko hainbat tokitan, baita tenperatura horiek gainditu ere, Solupen (Bizkaia), esaterako, 45,3 gradu, 1981eko 45- 44 graduak gaindituta.

Euskadi izan da tenperatura altuengatik alerta gorria ezarri duen autonomia-erkidego bakarra. Tenperatura horiek direla eta, Euskadin 48 pertsonari eman zaie arreta tenperatura altuengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).

Gero eta maizago gertatuko dira horrelakoak eta, beraz, unea da gure udalerrietan klima-aldaketara egokitzeko neurriak abian jartzeko, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun moduan zaindu eta kontserbatzeko eta gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna zaindu eta babesteko.

Erronka handia izateaz gain, klima-aldaketaren aurkako borrokak eta horretara egokitzeak udalerrri erresiliente eta osasungarriak sortzeko aukera gisa balio behar digute.

Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udaleko Osoko Bilkurak honakoa adierazten du:

Konpromisoa hartzen du udalerriko azpiegitura berdeari buruzko azterlan bat egiteko eta udalerriko gune grisenetan birnaturalizazioa sustatzeko, azken urteotan egin duenaren ildotik.

Konpromisoa hartzen du tenperatura optimoa bermatuko duten eta bero-boladen garaian aterpe klimatiko gisa erabil daitezkeen kanpoko zein barruko espazioak prestatzeko.

Konpromisoa hartzen du, orain arteko bideari jarraituz, hirien berdatzea sustatzeko, zuhaitzik edo eguzki-babesik ez dagoen lekuetan eta eremu gris gehiegi dauden lekuetan, gure hiriak klima-aldaketara eta gure herritarren osasuna babestera egokitzeko neurri gisa.

Konpromisoa hartzen du eskola-jolastokien eraldaketa balioesteko, leku inklusiboagoak, jasangarriagoak eta naturalizatuagoak bihurtzeko.